

Jarduerak



1	NORK BERE BURUA ESPAZIOAN KOKA	67. or.
2	EGUARTEA ETA GAUALDIA	71. or.
3	GAUA ETA EGUNA MUGIMENDUAN	75. or.
4	IPARRORRATZA IKASGELAN	79. or.
5	KUTXA BIRIBILA ETA ORIENTAZIOA	83. or.
6	EZAUPIDEAK ALDATU	87. or.
7	BIRAKETA NORANTZA	91. or.
8	MERIDIANOAK ETA PARALELOAK	95. or.
9	LEKUKO MERIDIANOAK	99. or.
10	EGUZKIAREN ITXURAZKO MUGIMENDUA	103. or.



Nork bere burua espazioan koka

- 1 Aurkibidea
- 2 Materiala
- 3 Hizkuntzaren lantzeko
- 4 Fitxak

1 AURKIBIDEA

- I. Hasierako ipuina
- II. "...horri buruz" nozioa menperatu
- III. Maketa eraiki
- IV. Puntu kardinalak : lehen aipamenak

2 MATERIALA

- Aizturak, kolorezko arkatzak

3 HIZTEGIA / MINTZAIRA FUNTZIOAK

parez-pare / bisean-bis	ezker
aitzinean	eskuin
.....ri buruz	gibelean

Nork bere burua ingurune hurbilean koka eta besteei adieraz.

4 FITXAK

- J1 ipuina (haurrei kontatzeko)
- J2 ikaslearen fitxa



NORK BERE BURUA ESPAZIOAN KOKA

1. lehen jarduera : HASIERAKO IPUINA

Eki Eguzkiaren gibeletik.  J1 ipuina hurrei kontatzeko.

Ipuin honetan oinarriturik, antzerki jokoa antolatzen da. Puntu kardinal eta Eguzkia gaiak erabiliz, hitz hauen eza-gutza egin : Eguzki, astro, zeru, zerbaiti buruz joan...

"Aizkibel" eta "Aizkorri" mendiak afixa handitan marraz eta gelako hormetan finka, bata besteari so, parez-pare.

2. jarduera : "HORRI BURUZ"


- 1 Etxea, oihana, mendia eta trena lau marrazkitan irudikatzen dituzte hurrek. Lau marrazki horiek ikasgelako lau hormetan ezartzen dituzte.
- 2 Haur bat ikasgelaren erdian emaiten da.
- 3 Argibideak :

- Etxeari buruz so egizu. Oihana ikusten ote duzu ?
- Ez.
- Oihanaren ikusteko zer egin behar duzu ?
- Oihanaren ikusteko, orain gibelera so egizu.
- Trenari buruz eman zaitez. Etxerik edo oihanik ikusten ote duzu ?
- Bai (haurrak burua itzul dezake eskuin edo ezker baina gibelaldean dagoena ez dezake ikus).
- Non dago oihana ?
- Nire ezkerrean dago.
- Non dago etxea ?
- Nire eskuinean dago.
- Eman zaitez mendiari buruz. Eta gero beha ezazu gibelera. Zer ikusten duzu ?
- Trena.

- 4 Joko bera beste haur batzuekin egin.

3. jarduera : MAKETA EGIN

 J2 muntaia fitxa.





- Motz eta kolorezta.
- Aitzineko galdeen jokoa errepika neskatoaren itxura maketaren erdian emanaz.
- Erabil daitezkeen argibideak : neskatoa trenari buruz so ezarrazu.

Zer ikus dezake neskato horrek gibelean ? Etxea ikusten ote du ?

4. jarduera : PUNTU KARDINALAK LEHEN AZALPENA

Aldaketa : 4 puntu kardinalak lau etiketatan idatz. Gorago aipatu lau marrazkien ordeztu ezar.

Jarduera bera egin dezakegu, puntu kardinalak "oihan", "tren", "mendi" eta "etxe" hitzen ordeztu erabiliz.

Ekialdearen beste alderdian (gibelean) Mendebaldea dago. Iparrari buruz ematen naiz parez-pare baina Ekialdea eta Mendebaldea ikus ditzaket. Hegoa ez dezaket ikus, beste alderdian delakotz...

jakin

Mendiari buruz so egitean, oihana gibelean dago.

Oihanaren ongi ikusteko, itzuli behar dut eta parez-pare ukanen dut.



Eguartea eta gaualdia

- 1 Aurkibidea
- 2 Materiala
- 3 Hizkuntzaren lantzeko
- 4 Ikaslearen fitxa
- 5 Dokumentazioa

1 AURKIBIDEA

- I. Egunaren disko handia
- II. Sailkapenak egin
- III. Gaualdia eta eguartea mugimenduan
- IV. Eguartea eta gaualdia maketa batean
- V. Argiontzia eta lur-globoa

2 MATERIALA

- bi kartoizko kutxa
- bi maketa edo oihal zati

3 HIZTEGIA / MINTZAIRA FUNTZIOAK

itzalmuga	eguartea
gaualdia	koloreak
orratza	eguzki altxatzea
eguzki gordetzea	eguerdi
gauerdi	

Eguneroko ekintzak denboraren xerrendan koka eta adieraz.

Solasaldi labur batzuk baliatuz antzeztan ikas.
Denboraren diskoan egiten diren jokoetako egintzak adieraz.

4 IKASLEAREN FITXA

 J 15.

5 DOKUMENTAZIOA

- Kididoc *De jour comme de nuit*, Nathan argitaletxea
- *Balthazar et le temps qui passe, aide-moi à faire tout seul* bilduma, Hatier argitaletxean
- *Une journée à la maternelle*, Ravensburger argitaletxea



EGUARTEA ETA GAUALDIA

1 Lehen jarduera : NOZIOA AZALDU

Eguartea, gaualdia, arratsaldea, goiza, ilunabarra... hitzak erabil.

Galdeak egin : *Zer egin duzu goiz honetan, arratsaldean, arrastirian, ilunabarrean, gauean...?*


Margolana : paisaia bat asma eguarte denean eta paisaia bera gaua denean.

Eguartea irudikatzen duten margolanak alde batean ezar, gauari dagozkionak bestalde, eta konpara. Elkarri egite badutea? Zein astro irudikatu dugu? Eguzkia, izarrak... Argia nola itxura genezake?

2. jarduera : EGUNAREN XERRENDIA



J 15 ikaslearen fitxa




Biñetak aitzurrekin motz eta eguarte eta gaualdia irudikatzen duten taulan itsats.

Adib. : jaikitzea, etzatea, ikasgelako zereginak, ametsak, otorduak... biñetetan irudika daitezke.

3. jarduera : EGUARTEAREN ETA GAUALDIAREN DISKOA BERE ORRATZ MUGIKORRAREKIN

Kartoizko zirkulu handi bat munta ikasgela guziarentzat. Zirkuluaren alde bat (eguarte) kolore arin batez koloretatuko dugu eta beste partea (gaualdia) kolore ilunagoz. Orratz bat iskilinba baten bidez zentroan lot. Artetan, atsedenetan adibidez, haurrek orratza leku egokian emanen dute.



Oharra :

disco honek ez du sekulan Lurraren irudikapena izan behar baizik eta haurraren denborarena.

Ohargarri da marrazki honek udaberriko eta udazkeneko ekinozioak itxuratzen dituela (eguartea = gaualdia).

Jarduera honen helburu bakarra zikloen nozioaren ulertzea da.




4. jarduera : SAILKAPENAK

- Hurrei galda etxetik ekar ditzaten gaualdia edo eguatea gogorarazten dituzten gauzak.
- Sailkapena egin : bi kutxa eman, bata kolore arinekoa (eguatea) eta bestea ilunekoa (gaualdia) : objektuak nahas-mahas ezarriak dira ; hurrek kutxa egokian sartu behar dituzte.
- Hirugarren kutxa bat beharko da dudazko objektuentzat edo sailkaezinak direnentzat.
- Ondotik bigarren sailkapen bat egin : goizeko, eguerdiko, arratsaldeko... objektuekin.

5. jarduera : EGUARTEA ETA GAUALDIA ANTZEZTUZ

Eguarte eta gaualdia antzeztu :

- bi moketa puska lurtean pausa (puska bat kolorez arina, bestea ilunagoa) eta antzoki bat egin. Erdian itzalmuga itxuratuko da marra beltz bat eginez. Itzalmugaren nozioa geroago landuko da.



Haur bat (edo gehiago) antzezle bilakatuko da eguarte aldetik eta beste bat gaualditik. Elkarriketa eta berdina antzezlan bat asma daiteke (lo egin, jostatu, gaueko animaliak mima...).

- *Kasu : Lurraren biraketa ez da oraino aipatuko.*

jakin

Eguarte eta gaualdia, bata bestearen ondotik datoz.
egun bat = eguarte bat + gaualdi bat.



Gaua eta eguna mugimenduan

1 Aurkibidea

2 Ikaslearen fitxak

1 AURKIBIDEA

Maketa eraikuntza

Argi-ontzia eta Lur-globoa

3 HIZTEGIA / MINTZAIRA FUNTZIOAK

eguartea	gaualdia
eguzki altxatzea	eguzki gordetzea
eguneroko egintzak	argiontzia
<i>(jostatzen, lan egiten iratzartzen...)</i>	
lur-globoa	
itzalmuga	
lur-biraketa	

Maketaren muntaia nola egin adieraz.

Lur-globoa eta argiontziaren esperientzia adieraz.

2 IKASLEAREN FITXAK



J6 - J7 - J8.



GAUA ETA EGUNA MUGIMENDUAN

Aitzin-solas gisa, hurrei galda :
Eguarte eta gaualdia bata bestearen ondotik dabilta.
Zerk gaitu ohartarazten ?

Hitz hauen erranahiak ongi ulertu :

Eguarte = argi egiten duen denbora

Gaualdi = **gaua** = ilun egiten duen denbora

Eguna = eguarte + gaualdia

Eguzki altxatze = Eguzkia ateratzen denean

Eguzki gordetze = Eguzkia sartzen denean



Lehen jarduera : eguarte / gaualdiaren maketa : eraikuntza eta ustiapena

a Moztu eta margotu

Irudiak moztuko, margotuko eta muntatuko dira iskilinba batekin.
Eskemako lau pertsonaiak izenda, adibidez A, B, C eta D.
Haurrek muntaia bukatuko dute eta aurkeztuko (urdin ilunez = gaualdia / urdin arinez = eguarte).
Hurrei galda zer egin daitekeen maketa honekin.
Irakasleak gisa bereko maketa egin dezake arbelean (eskala handiagoan jardueraren hobeki kudeatzeko gisan).



J6 muntaia fitxa.



b Maketa nola balia :

Manipulazio adibide batzuk :

■ Irudi zirkularra itzularaz ordulariaren norantza erabiliz.

■ A eta B pertsonaiak gaualdian izan daitezen zer egin behar da ? (Zirkulua itzul : biraketa) eta C eta D non daude ondorioz ? Zer ariko dira ? (lo daude, jaten ari, jostatzen ari, lanean ari, iratzartzen ari...)

■ D eguerditan ezar (Eguzkiari begira) zer tenore ote da B-rendako ? (gauerdi). Zer ari dira A eta C ? Eguartearen edo gaualdiaren zein gunetan kokatzen dira ?



Erantzuna : B : gauerditan, A : eguzki altxatzean eta C : eguzki gordetzean.

■ B eguzki altxatzean ezar eta gero arrats apalean ; non daude besteak ?...



2. jarduerarekin irudikapen planotik 3. kaizura (dimentsiora) pasatzen gara...

2. jarduera ARGIONTZI ETA LUR-GLOBOAREKIN



Itzalmuga erhiz erakuts



- Lur-globoa argizta argiontziaekin (Eguzkiarena eginen du).
- Argian eta ilunpean dauden alderdiak ongi bereiz (= itzalmuga).
- Pertsonaia batzuk itsats (haurrak xutik paperez) patafix gomarekin gualdiaren alderdian (alderdi iluna) eta aldiz, beste batzuk eguarte alderdian (alderdi argia) ; lehen jardueran erabili diren galde berak egin.
- Haur bati pertsonaia bat eguzki altxatzean ezar dezan galda. Alderdi iluna eta argiaren artean itzalmuga aurkitu beharko du. Ariketa bera eginen da arrats apalarekin (eguzki altxatzearen beste alderdian beti itzalmugari hurbil) ; berdin eguerditan (Eguzkiari begira), gauerditan (eguerdiren beste alderdian) ; lur-globoa itzularaz (biraketa).

Oharra :

Lur-globoaren orde, irakasleak edo ikasleak maketa polistirenozko borobilarekin egin dezakete. Argiontzi bat baliatuz, Eguzkiarena egin dezake.



J7 - J8 ikaslearen fitxak.



jakin

Lurra argizatzen du Eguzkiak.

Lurrazalean, eguarte argiztatua den alderdiari doakio eta ilunpeari gualdia.

Lurra bere ardatzaren inguruan itzulika dabilelakotz (*biraketa* deitzen da), gualdia eta eguarte elkarren ondotik dabilta : eguertetik gualdira iragaiten gara.



Iparrorratza ikasgelan

- 1 Aurkibidea
- 2 Dokumentazioa
- 3 Hiztegia / Mintzaira funtzioak
- 4 Beste
- 5 Ikaslearen fitxak

1 AURKIBIDEA

- I. Iparrorratza marra
- II. Atelietan : tresnaren erabilpena ikasgelan
- III. Ikastetxeko jostalekuan egin daitezkeen jarduerak

2 DOKUMENTAZIOA

Iparrorratzaz : *Cap sur les Nouveaux Mondes*,
Les objets de la science bilduma, Casterman argitaletxea.

3 HIZTEGIA / MINTZAIRA FUNTZIOAK

iparrorratza
orratza
puntu kardinalak

Bere buruaren kokagunea edo edozein objekturena
puntu kardinalen bidez adieraz.

4 BESTE

Kasu : iparrorratzekin nahaskeriak sor daitezke
burdinazko gauzak hurbiltzen baditugu.

5 IKASLEAREN FITXAK

 J3 - J4.



IPARRORRATZA IKASGELAN

Txinatarrek dute lehen aldikotz asmatu iparrorratza (edo konpas magnetikoa).

Lehen jarduera : IPARRORRATZA NOLAKOA DA ?



- 1 Hurrei iparrorratzak ekar ditzaten galda.
- 2 Haurak taldean lan egiteko gisan ezar, iparrorratz batekin.
 - Iparrorratzaren deskribapena egin dezaten galda (idatziz edo ahoz).
- 3 Bakarkako lana orri batean eginaraz (bristol).
 - Iparrorratzaren marrazkia kolorezta.
 - Puntu kardinalak begira. Aizturrekin iparrorratza itzuli-itzulika motz eta egiazko iparrorratzari jarraikiz orientazio bera eman.



J3 - J4 ikaslearen fitxak.

2. jarduera : ATELIERAK / IPARRORRATZA ZERTARAKO

- Egiazko iparrorratza baliatuz, ikasgela orientatuko dugu. Ondotik, 4 puntu kardinalak itxura daitezke (etiketa batzuen bidez).
- Jostailu tipiak balia : auto, kanika, pertsonaia...
 - 1 Iparrorratza mahaiaren erdian pausa.
 - 2 Jostailuak nonahi eman mahai gainean eta iparrorratzaren puntu kardinalen arabera non aurkitzen diren erran (Iparrean, Mendebaldean, Ipar-mendebaldean...).

3. jarduera : IKASTETXEKO JOSTALEKUAN

Ikasgelan egin dugun jarduera bera kanpoan egin.

- Jostalekuaren zentroa atzeman eta gune hori tintaz marka.
- Gune horretan HEGOIA aurki iparrorratza baliatuz.
- Ondorioz IPARRA eta beste bi puntu kardinalak atzeman.

Iparrorratz bakoitzaren orratzen paralelismoa ohargarri da.

Erronda bat egin hurrekin eta puntu kardinalak lau etiketatan idatz.

Ikasle bat errondaren erdian jartzen da (iparrorratza balia). "Kattalin non dago ?" izenda genezakeen joko hau puntu kardinalen erabiltzeko orientazio jarduera da :

- Zu ipar-mendebaldean zaude !
- Zure ekialdean, Patxi ezarrazu., eta abar.


jakin

Iparrorratzaren orratz gorriak lparra erakusten du. *lpar magnetikoa* deitzen da. lpar geografikoa apur bat ezberdina da (3° -z guti gorabehera Ekialdeari buruz aldatzen da). Iparrorratzaren punta zuriak aldiz Hegoa markatzen du.